

EAEko

lehendaka-

riaren mezua

ETB1, ETB2 • 14:05,
21:30etan

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Eguberrietako mezua emango du gaur, eta ETBko bi kateetan ikusi ahal izango da.



gaurko filmak

Ane Muñoz

■ DISTRACCION FATAL.

Harritzekoa da, baina kate guztietako programatzaileak oso zuhur ageri dira aurtengo Urtezahar komertzialki berezi honetan, filmen eskaintzari dagokionez, behintzat. Izan ere, oso zerrenda eskasa iragarri baitute, kalitatez nahiz kantitatez pobrea, benetan. Oso gutxi dira gomendatzeko moduko filmak, lerrootan komentatzera natorrena beza-la. Reinerren hau, gutxienez, entretenimendu gisa ikus dezakezue. *Instinto básico* eta *Atracción fatal* bezalako film komertzialen parodia erraz eta arrunta da, ez oso orijinala, eta inolako lotura koherenterik ez duten eszena askez josia dago. Sherilyn Fenn eta Armand Assantek rol nagusiak jokatzen dituzte, hainbat aurpegi ezagunen alboan.

■ LOS DIOS DEBEN ESTAR LOCOS.

Jamie Uys zinemagile hegoa-frikarrak, komedia ero eta dibertigarri hau joan den hamarkadaren hasieran filmatu zuenean, arrakasta handia lortu zuen, eta mundu osoan zehar proiektatu zuten, hango eta hemengo ikusle gaztetxoak pozik utziz. Handik urte batzuetara, berriz, bigarren atala filmatzeko eskatu zioten, baina ez zuen lortu lehenaren erantzun eta arrakasta. Hain zuzen ere, freskotasuna erabat galdu baitzuen, eta errepikapen hutsa izanik, ez zituen ikusleak erraz erakarri. Lehen atal hau, ordea, arina da, eta gustura ikusiko duzue ziurrenik. Nixau aktore afrikar sinpatikoak protagonizatua da, eta basamortuan barrena coca-cola botil huts batekin doalarik biziko dituen abenturak erakusten ditu.

■ JENARO, EL DE LOS 14.

Espainoladetako Alfredo Landa komikoaren miresleek badute gaurkoan zerekin entretenitua. Izan ere, Maria-

Superkalifrajilistikoespiralidoso

■ MARY POPPINS. Julie Andrews aktore goxoak haurtzaroa berreskuratu zuen honako fantasia ederrean protagonistaren rola antzetzeko deitu zutenean; arrakasta nabarmena jaso zuen eta, aurrerantzean, kameraren parean lan egiteko eskaintza ugari izan zuen. Film hau haurrentzako abentura klasikoa da, oso musikal polita, eta benetako aktoreak eta marrazki bizidunak elkar nahasita aurkezten dituen istorio gozagarria kontatzen du. Txikiek ez ezik, helduok ere ikustea merezi du, hamaikagarren aldiz bada ere.

Josélito le rossignol des... 1958, Antonio del Amo, 90 m. 13:30 F3	♦ ♦
Los dioses deben de estar locos 1980, Jamie Uys, 108 m. 15:30 ETB2	♦ ♦
Una Navidad Ebenezer 1997, Ken Jubenvill, 90 m. 16:15 T5	♦ ♦
Mary Poppins 1964, Robert Stevenson, 135 m. 17:25 M6	♦ ♦ ♦ ♦
Distracción fatal 1993, Carl Reiner, 86 m. 17:30 ETB2	♦ ♦
Casper, la primera aventura 1997, Sean McNamara, 94 m. 22:00 C+(e)	♦ ♦
Trois petits mots 1950, Richard Thorpe, 100 m. 01:25 F3	♦ ♦ ♦
House Party III Eric Meza 02:45 ETB2	♦
Fuego en la sangre 1995, Peter Daniels, 85 m. 03:00 T5	♦ ♦
Jenaro el de los 14 1974, Mariano Ozores, 81 m. 05:00 T5	♦
♦ TXARRA	♦ ♦ ESKASA
♦ ♦ ♦ BALEKOA	♦ ♦ ♦ ♦ ONA
♦ ♦ ♦ ♦ ♦ BIKAINA	



Sean Young, *Distracción fatal* filmeko irudi batean.

no Ozores zuzendariaren umore zakar eta zaharkituaz filmatutako abentura honek aktore horri gordetzen baitizkio plano gehienak. Hona argumentua: aberastu berri

den gizon tuntun batek, bat-batean, inguruko emakume guztiak atzetik izango ditu. Zozokeria galanta da, egia esanda. Tira, azpijeneroa gus-tatu egin behar!

ETB 1

07:10: Bertatik Bertara.
07:35: Euskal Herritik.
08:05: Bidaide.
09:25: Superbat.

Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Pottokiak', 'Bugs Bunny', 'Etxealtekoak', 'Porky txerritxoa', 'Addams familia', 'Tex Averyren marrazki bizidunak', 'Etxe txakurra', 'Tom eta Jerry mutikotan', 'Dennis eta Gnasher'. 'Huckleberry Hound', 'Wentzeslao errege zintzoa', 'Badator Santa Klaus'.

13:00: Iparraldearen Orena.
13:05: Harriketarrak.
13:30: Gaur egun.
14:05: Lehendakariaren mezua.
14:15: Goenkale.
15:00: Galdestreet.
15:30: Egin kontu.
17:00: Donostiako Super Krosa.
18:25: Pilota: afizionatuak Zaldibarko 'Olazar' txapelketa.
Lau t'erdian: Leiza-Elorrieta.
Eskuz binaka: Otaegi-Solozabal / Murua-mendiraz-Jaio.
20:28: Gaur Egun.
21:00: Bertatik Bertara.
21:45: Sorginen Laratza.
1999. urtea agurtzeko saio berezia.
00:05: Agur 2.000 Kantuz
03:00: Tropicana izarrik argiena.
04:00: Galdestreet.
04:30: Egin kontu.
06:00: Duplex.
06:25: Herri Musika Sorta.

ETB 2

08:35: Navarra salvaje.
09:00: Del país de los vascos.
09:25: Herri musika sorta.
09:40: Soltero. Telesaila.
10:05: Mil y una gentes. Ruth Martínezek aurkeztutako saioa.
10:30: Esta es mi gente.
11:45: Compañeros de piso. Telesaila.
12:10: Maité. Telesaila.
13:00: La cocina de Pedro Subijana.
13:15: La vida con Roger. Telesaila.
13:45: Loco por tí. Telesaila.
14:10: Informativo territorial.
14:28: Teleberri. Albistegia.
15:30: Zinema.
Los dioses deben de estar locos.
Zuzendaria: Jamie Uys. Aktoreak: Nixau, Marius Weyers. 1980.
17:30: Cine Navidad. Distracción fatal.
Zuz.: Carl Reiner. Akt.: Armand Assante, Sherilyn Fenn. 1993.
19:05: Esta es mi gente.
20:25: Da la talla en la pantalla.
20:58: Teleberri.
21:30: Lehendakariaren mezua.
21:40: Historias para un siglo. A
23:05: Ongi Etorri 2.000.
Txetxu Ugaldek, Yolanda Alzolak, Lorena Bernalek eta Antxon Urrusolok aurkeztutako saio berezia.
02:45: Zinema.
House Party III.
Zuzendaria: Eric Meza. Aktoreak: Kid'n Play, Michael Coyar.
04:15: Amaiera.

irratia

♦

Molotoff Irratia. Saio berezia egingo dute gaur Hernaniko Molotoff Irratian, *Preso, errefuxiatu eta deportatuen egoera* izenburuarekin. Bertan Hernaniko preso-en senide guztien testigantza izateaz gain preso-en ahotsa ere entzun ahal izango da. Horretaz gain, herriko hainbat errefuxiatuarekin eta euren senideekin hitz egingo dute Molotoff Irratikoek. Beste pertsona askoren ahotsa entzun ahal izango da: herriko alkate izandakoena, hainbat taldetako kideena... Bes-

tetik, tabernari eta dendariei 99.2 FM sin-tonizatzeko gonbidapena egingo zaie gutun baten bitartez. Saioa goizeko 10:00etan hasiko da, eta 14:00ak aldera amaituko da.

Radio Euskadi. Gaur gaueko 21:00etatik eta Urteberri eguneko goizeko 09:00ak arte, 12 orduko saio berezia eskainiko dute *La noche del milenio* izenburuarekin. 23:00etatik 01:00etara Felix Linares

milurtekoaren musikari errepasoa emango dio; eta 2.000 efektuak eraginik izan duen aztertuko du Kike Alonsok. Gaueko hurrengo orduetan hainbat gai jorratuko dituzte, ordu erdiko 12 atalen bitartez.

Euskadi Irratia. Urtezahar egunean *Goi-zean Behin* irratsaiokoe entzuleei agur esango diete datorren urtera arte, eta arratsaldeko 18:00etan *Lauren Babel* berezia egingo dute, eta ondoren *Badoa 99*.

Katxarro

SAGARDOTEGIA

Urte osoan irekita

94 658 29 67- ELORRIO